Cajaraville, Gaztelumendi, Egaña, Martín (Jazzaldia), Martinez eta Zeberio, atzo Donostian. :: MIKEL FRAILE

BertsoJazza: lau bertsolari eta bost musikari, denak amildegiaren ertzean

Ekimen honen bigarren edizioan Andoni Egaña, Jon Maia, Beñat Gaztelumendi eta Miren Amuriza ariko dira

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. BertsoJazza abian da berriz ere. Lehenbiziko aldiz 2008an egin zen, estreinatu Donostian eta gero beste zenbait tokitan, eta orain bigarren edizioa iragarri dute. Jazzaldiaren barruan izango da, uztailaren 24an Victoria Eugenia antzokian. Bertsolariak Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza eta Jon Maia izango dira, eta musikariak, berriz, hauek: Bixente Martinez (gitarra), Amaiur Cajaraville (kontrabaxua), Hasier Oleaga (bateria), Julen Izarra (saxoa) eta Xabier Zeberio (biolina).

Bertsolariek inprobisatu egingo dute, guztiz, gaiak Unai Elizasuk emanda, orain dela zortzi urte bezala. Aurpegi batzuk berriak dira oraingoan; duela zortzi urte, Egaña, Maia, Arzallus eta Maialen Lujanbio jardun ziren. Bigarren edizio honetan, Gaztelumendi eta Miren Amurizak hartu dute Arzallus eta Lujanbioren tokia.

Musikariei dagokienez, bai 2008an bai orain, Bixente Martinez jardun da zuzendari-lanean. Bertsolariek eta musikariek eginak dituzte bilera batzuk doinuak, tonuak eta erritmoak argitzeko.

Hasierako BertsoJazz hura, Lanku enpresak proposatutakoa izan zen, eta Jazzaldiarekin elkarlanean burutu zen. Orain, berriz, Jazzaldiak eman du aurreneko pausoa.

Egañak hau esan zuen atzoko aurkezpenean: «Modu askotako plazak izaten ditugu. Tartean-tartean, topatzen dugu zerbait desberdina, eta xaxatze eta tentaldi horiei askotan ematen diegu baietza. BertsoJazza ez da gauza erraza, konpas baten barruan ibili behar izaten da, ohiko lanaz gain, baina tilin egiten digu. Ahalegina ziurtatzen dugu, emaitza ez».

Eta Gaztelumendik, berriz: «Aurreneko BertsoJazz hartan ez nuen parte hartu, baina ikusi nuen, eta inbidia sentitu ere bai. Tonu berean aritu beharko dugu bertsolariok eta musikariek, eta horrek ahalegina eskatzen digu. Ea bertsoari zer ekartzen diogun, jazzarekin jardunda. Bitartean, bidean ondo pasatzen ari gara».

Doinuak, neurri handi batean, erabakita daude. Bertsolariak izan dira doinuak aukeratu dituztenak. Baina hori oinarri bat besterik ez da. Gero, jendaurreko saioa datorrenean, musikariek erreparatu beharko diete bertsoei –ea umorezko diren, ea seriotik gehiago daukaten...– eta horren arabera egokitu beharko dute adostutako doinua.

Unai Elizasu da formatu honen sortzailea eta bera ariko da gai jartzen uztailaren 24an

DATUAK

Saioa: Uztailak 24, Donostian.
Gai-jartzailea: Unai Elizasu.
Bertsolariak: Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza eta Jon Maia.
Musikariak: Bixente Martinez (gitarra), Amaiur Cajaraville (kontrabaxua), Hasier Oleaga (bateria), Julen Izarra (saxoa) eta Xabier Zeberio (biolina).

Erosi sarrerak: entradas.diariovasco.com

Saio errepikaezinak

Esan bezala, Bixente Martinez ari da musikariak koordinatzen. Aditzera eman duenez, doinu gehienak bertso-doinuak izango dira, baina egongo da bestelakorik ere. «Gure ahalegina izango da bertsolariei akonpañamendu politena eta osatuena ematea. Batez ere bertso-doinuak erabiliko ditugu; ezin dudu bertsolaria gehiago fastidiatu. Saio bakoitza errepikaezina izango da, eta horrek berezi bihurtzen du. Desafío handia da guretzat, ez baitakigu bertsoa umorezkoa izango den, edo bertsolariak oso azkar kantatuko duen. Baina hortxe dago grazia ere».

Egaña jakitun da musikariek egin beharko duten lanaz: «Bertsolarioi egiten diguzuena ez da akonpañamendua, da atzetik segitzea».

Bai Bixente Martinez bai Xabier Zeberio Oskorrin jardundakoak dira, eta Martinez hasiera beretik, gainera. Martinez, Cajaraville eta Oleaga elkarrekin ari dira Igelaren Bandan, eta hain zuzen iaz 'Debalde festa' diskoa plazaratu zuen hirukoteak, non bertso-doinuak bertsionatu zituen.

Unai Elizasu giltzarri izan da ekimen honetan. Berari bururatu zitzaion BertsoJazzaren ideia. Formatu berrien sortzaile izan da, hala nola 'Errimak oinetan', 'Barkatu', 'Erregea eta bufoia' eta 'Bertsolaria bere bakardadean'.

Crímenes 'de aquí' en las dos nuevas entregas de la colección 'Cosecha roja'

:: F. I.

SAN SEBASTIÁN. La editorial Erein presentó ayer otras dos obras de su colección de novela negra 'Cosecha roja'. El donostiarra afincado en Bilbao Javier Sagastiberri ha publicado 'El asesino de reinas', su 'opera prima', escrita al comienzo «como un juego familiar», pero que finalmente tomó cuerpo como para acabar en una editorial. Narra una serie de asesinatos de mujeres que ocurren acompasados con los partidos que el Athletic disputa en la Copa del Rey de la temporada 2008-09. Las investigadoras de la Ertzaintza son dos mujeres guipuzcoanas que en su trabajo están rodeadas de compañeros vizcaínos, y esa rivalidad territorial es otro de los ejes de la novela.

EL ASESINO DE REINAS
J. SAGASTIBERRI
Género: Novela negra.
Editorial: Erein.
Páginas: 287.
Precio: 18 euros.

LA CHICA OLVIDADA
NOELIA LORENZO
Género: Novela negra.
Editorial: Erein.
Páginas: 471.
Precio: 20 euros.

Por su parte, la irunesa Noelia Lorenzo ha publicado 'La chica olvidada', su tercera novela en cuatro años, y segunda pieza en esta colección de Erein. El libro enlaza el caso de la muerte violenta de la errenteriarra Lorea Gálvez con otro crimen, todavía sin resolver, acaecido hace catorce años en plenas fiestas de Hondarribia. La patrullera de la Ertzaintza Lorea Yoldi insistirá en que el caso se reabra, al ser la muerta amiga suya. De ambos casos se encargarán la agente Eider Chassereau y el suboficial Jon Ander Macua.

RPS: 186/15

Mucho más que cirugía láser

Implantación de **lentes intraoculares**:
Lentes ICL, para personas no aptas para cirugía laser
Lentes LIO multifocales, para personas présbitas

Imagínate la vida sin gafas ni lentes de contacto

Nuestros profesionales estudiarán tu caso y te propondremos la técnica refractiva **óptima para ti**.

AZPEITIA
Centro de Diagnóstico
Loiola auzoa, 25c bajo
T 943 151 752

SAN SEBASTIÁN
Centro Quirúrgico
Dulce María Loynaz, 2
T 943 444 679

IRUN
Centro Médico Teknia
Juan de la Cruz, 5
T 943 613 408

LOIOLAVISION
klinika oftalmologika

Nueva clínica en Donostia junto a Onkologikoa